| Behin kontratua esleituta baina sinatu aurretik, esleipendunak, Udaleko teknikari batekin batera, kontratuaren xede den instalazioa bisitatuko dute, eta biek batera esleipendunaren eskura dauden ondasunen inbentarioa egingo dute (erabiliko direnak zein ez direnak), eta kontratuan eranskin gisa jasoko da, sinatu ahal izateko. | Una vez que se haya adjudicado el contrato y antes de que se firme el mismo, el adjudicatario junto con un técnico del Ayuntamiento, visitaran las instalaciones objeto del contrato y realizaran conjuntamente un inventario de los bienes que se encuentran a disposición del adjudicatario (tanto los que se utilizarán como los que no) y se incluirá en el contrato como Anexo para su firma. |
| III. KONTRATUA GAUZATZEA | III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO |
| 17. KONTRATUA GAUZATZEA | 17. EJECUCIÓN DEL CONTRATO |
| Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da, SPKLko 197. artikulua arabera. | El contrato se ejecutará a riesgo y venura del contratista, según el artículo 197 del LCSP, |
| Kontratua bere baldintzetan eta administrazio-baldintzen nahiz baldintza teknikoan pleguetan adierazitakoa kontuan hartuta gauzatuko da, bai eta kontratazio-organoak kontratistari haien interpretaziorako zuzenean edo kontratuaren arduradunaren bitartez emandako azalpenak kontuan hartuta ere. | El contrato se ejecutará teniendo en cuenta lo estipulado en las condiciones y cláusulas administrativas y prescripciones técnicas, así como según las directrices marcadas directamente por el órgano de contratación al contratista o por medio del responsable del contrato. |
| Kontratistari edo haren mende dauden pertsonari egotzi dakizkien egintzengatik edo omisioengatik, arriskuan jartzen denean kontratua ondo bidean joatea, Udalak exijitu | Cuando por actos u omisiones imputables al contratista a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, el Ayuntamiento podrá exigir la adopción de las |



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|---|---|
| ahalko du beharrezko neurriak hartzera, kontratua betetzean ordena ona lortu edo berraztertzeke. | medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo. |
| Udalaren ardura izango da lana ondo egiten dela zaintzea, zuzentzea, egiaztatzea eta koordinatzea. Horretarako, erakunde horrek kontratuaren arduraduna hautatuko du langileen artean. | El Ayuntamiento se encargará de velar por que el trabajo se realice adecuadamente, así como de su dirección, verificación y coordinación. Para ello, dicha institución elegirá a una persona encargada del contrato entre el personal. |
| Kontratua gauzatzen hasi baino lehen, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikulua garatzen duen 171/2004 Errege Dekretuak xedaturikoa betetzearen, kontratu horren xedeko lanerako arriskuen ebaluaketa eta prebentziozko jardueraren planifikazioa eginga dutela egiaztatu beharko dute. | Con carácter previo al inicio de ejecución del contrato, deberán haber realizado para la actividad objeto del contrato la evaluación de riesgos y la planificación de su actividad preventiva, de conformidad con lo dispuesto en el Real Decreto 171/2004 de desarrollo del artículo 24 de la Ley de Prevención de Riesgos laborales. |
| 18. KONTRATUA BURUTZEKO BALDINTZA BEREZIAK | 18. CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO |
| 1.- Kontratua betetzeko baldintza bereziak lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunarenean: | 1.- Condiciones especiales de ejecución en materia laboral, de Seguridad Social y en seguridad y salud en el trabajo: |
| Enpresa kontratugileak bete egin behar ditu indarrean dauden legezko, araudizko eta hitzarmenezko xedapen guztiak, betiere, lan arloan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunean aplikatzekoak badira. Kontratuaren iraunaldi osoan, adjudikatzaileak egunean eduki behar ditu bere langileekiko soldata obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak. | La empresa contratista deberá cumplir todas las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes en materia laboral, Seguridad Social, y seguridad y salud en el trabajo. En especial, el adjudicatario del contrato, durante todo el período de su vigencia, deberá encontrarse al corriente en las obligaciones salariales con sus trabajadores y con la Seguridad Social. |
| Hauek izango dira ez-betetze arinak: | Serán incumplimientos leves: |
| a) Langileari idatziz ez jakinaraztea kontratuaren funtsezko osagaiak eta lan-prestazioa betetzeko baldintza nagusiak, dagokion araudiak ezarritako moduan eta epeetan. b) Lan-istripuen eta deklaraturako laneko gaixotasunen berri ez ematea lan agintaritzan | a) No informar por escrito al trabajador o trabajadora sobre los elementos esenciales del contrato y las principales condiciones de ejecución de la prestación laboral, en los términos y plazos establecidos en la normativa correspondiente. |



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|---|---|
| <p>eskudunari garaiz eta dagokion moduan, istripu edo gaixotasun horiek arintzat jotzen direnean.</p> <p>c) Aldi baterako ezintasunen bajaren, baja berrespenaren edo altaren agiri medikuen kopia ez bidaltzea dagokion entitateari.</p> <p>d) Betebehar formal soilei edo dokumentalei eragiten dizkieten gainerako ez-betetzeak.</p> | <p>b) No dar cuenta, en tiempo y forma, a la autoridad laboral competente de los accidentes de trabajo ocurridos y las enfermedades profesionales declaradas cuando tengan la calificación de leves.</p> <p>c) No remitir a la entidad correspondiente las copias de los partes médicos de baja, confirmación de la baja o alta de incapacidad temporal facilitadas por las personas trabajadoras.</p> <p>d) Cualesquiera otros incumplimientos que afecten a obligaciones meramente formales o documentales.</p> |
| Ez-betetze larriak: | Serán incumplimientos graves: |
| <p>a) Lan-kontratua idatziz ez formalizatzea, betekizun hori legez bete beharrekoa denean edo langileak eskatu duenean.</p> <p>b) Kontratu-motei, iraunaldi zehatzeko kontratuei eta aldi baterako kontratuei buruzko araudia urratzea, kontratu-mota ezberdinak lege-iruzurrez erabilita.</p> <p>c) Lanaldi, gaueko lan, aparteko ordu, ordu osagarri, atsedenaldi, opor eta baimenei buruzko arauak eta legezko nahiz hitzartutako mugak ez betetzea.</p> <p>d) Enpresak bere kasa ezarritako funtsezko lan- baldintzak aldatzea, legez ezarritako prozeduretar jotzeke.</p> <p>e) Legez edo hitzarmen kolektiboz ezarritako lan baldintzak baino txarragoak ezartzea, eta era berean, langileen Estatutuaren 4. artikulua langileei aitortzen dizkien eskubideen kontrako ekintzak nahiz ez-egiteak burutzea, oso larritzat ez badira sailkatzen.</p> <p>f) Laneko segurtasun eta osasun-plana ez egitea lan arriskuen prebentzioari buruzko</p> | <p>a) No formalizar por escrito el contrato de trabajo cuando este requisito sea exigible o cuando lo haya solicitado el o la trabajadora.</p> <p>b) Incumplir la normativa sobre modalidades contractuales, contratos de duración determinada y temporales, mediante su utilización en fraude de ley.</p> <p>c) Incumplir las normas y los límites legales o pactados en materia de jornada, trabajo nocturno, horas extraordinarias, horas complementarias, descansos, vacaciones, permisos.</p> <p>d) Modificar las condiciones sustanciales de trabajo impuestas unilateralmente por la empresa, sin acudir a los procedimientos legalmente establecidos.</p> <p>e) Establecer condiciones de trabajo inferiores a las establecidas legalmente o por convenio colectivo, así como los actos u omisiones que fueren contrarios a los derechos de las y los trabajadores reconocidos en el artículo 4 de la Ley del Estatuto de los trabajadores, salvo que proceda su calificación como muy grave.</p> <p>f) Incumplir la obligación de elaborar el plan de seguridad y salud en el trabajo con el</p> |



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|--|--|
| <p>araudiak ezarritako edukiarekin eta irismenarekin.</p> <p>g) Laneko segurtasun eta osasun-planaren jarraipena egiteko betebeharra ez betetzea, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiak ezarritako irismenarekin eta edukiarekin.</p> <p>h) Indarrean dagoen araudiaren arabera azterketa medikuak eta langileen osasun egoera aztertzeke aldizkako zainketa probak ez egitea, edo haien emaitzen berri dagokien langileei ez ematea.</p> <p>i) Langileak euren ezaugarri pertsonal ezagunekin bateraezinak diren lanpostuetara atxikitzea, ez-betetzea oso larritzat jotzen denean izan ezik.</p> <p>j) Lan istripuen eta deklaraturako lanbide gaixotasunen berri garaiz eta forma egokian ez ematea lan-agintaritzari, indarrean dauden xedapenen arabera, istripu edo gaixotasun horiek larri, oso larri edo hilgarri kalifikazioa dutenean, edo ikerketarik ez burutzea langileen osasunari kaltea eragin zaionean edo prebentzio-neurriak nahikoak ez direla susmatzeko zantzuak daudenean.</p> <p>k) Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia ez betetzea, ez-betetzea arintzat edo oso larritzat jo denean izanik ezik.</p> <p>l) Lantokiaren edo langunearen garbitasun eza, ohikoa denean edo langileen osotasun fisikorako eta osasunerako arriskua dakarrenean.</p> <p>m) Langile berrien hasierako afiliazioa edo alta ez eskatzea, edo epez kanpo eskatzea, ikuskapen-jarduera baten ondorioz. Ondorio horietarako, kasu horretan dagoen langile bakoitzeko ez betetze bat eman dela ulertuko da.</p> | <p>alcance y contenido establecidos en la normativa de prevención de riesgos laborales.</p> <p>g) Incumplir la obligación de realizar el seguimiento del plan de seguridad y salud en el trabajo, con el alcance y contenido establecidos en la normativa de prevención de riesgos laborales.</p> <p>h) No realizar los reconocimientos médicos y pruebas de vigilancia periódica del estados de salud de las y los trabajadores que procedan conforme a la normativa en vigor, o no comunicar su resultado a las y los trabajadores afectados.</p> <p>i) Adscribir trabajadores o trabajadoras a puestos de trabajo cuyas condiciones fuesen incompatibles con sus características personales conocidas, salvo cuando se considere incumplimiento muy grave.</p> <p>j) No dar cuenta en tiempo y forma a la autoridad laboral, conforme a las disposiciones vigentes, de los accidentes de trabajo ocurridos y de las enfermedades profesionales declaradas cuando tengan la calificación de graves, muy graves o mortales, o no llevar a cabo una investigación en caso de producirse daños a la salud de las y los trabajadores o de tener indicios de que las medidas preventivas son insuficientes.</p> <p>k) Incumplir la normativa de prevención de riesgos laborales, salvo que la misma tenga la consideración de leve o muy grave.</p> <p>l) La falta de limpieza del centro o lugar de trabajo, cuando sea habitual o cuando de ello se deriven riesgos para la integridad física y salud del personal.</p> <p>m) No solicitar la afiliación inicial o el alta de las y los trabajadores que ingresen a su servicio, o solicitar la misma, como consecuencia de actuación inspectora, fuera del plazo establecido. A estos efectos se considerará un incumplimiento por cada trabajador o trabajadora afectada.</p> <p>n) No ingresar, en la forma y plazos reglamentarios, las cuotas correspondientes que</p> |
|--|--|



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|--|---|
| <p>n) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kontzeptu guztiengatik biltzen dituen kuotak dagokion moduan eta epeetan ez ordaintzea, edo dagokion diru sarrera behar den zenbatekoan ez egitea, kotizazio-agiriak aurkeztuta, betiere, diru sarrera ez egitearen arrazoia enpresaren konkurtso-deklarazioa ez bada, edo ezinbesteko kasua, edo ez bada eskatu kuotak ordaintzeko epearen atzerapena inspektzio-jarduna hasi aurretik, ezezko ebazpenik ez bada eman.</p> <p>o) Hirugarren ez-betetze arina.</p> | <p>por todos los conceptos recauda la Tesorería General de la Seguridad Social o no efectuar el ingreso en la cuantía debida, habiendo presentado los documentos de cotización, siempre que la falta de ingreso no obedezca a una declaración concursal de la empresa, ni a un supuesto de fuerza mayor, ni se haya solicitado aplazamiento para el pago de las cuotas con carácter previo al inicio de la actuación inspectora, salvo que haya recaído resolución denegatoria.</p> <p>o) El tercer incumplimiento leve.</p> |
| <p>Ez-betetze oso larriak:</p> | <p>Serán incumplimientos muy graves:</p> |
| <p>a) Langileari zor zaion soldata ez ordaintzea edo ordainketa behin eta berriro atzeratzea.</p> <p>b) Enpresak bere kasa hartzen dituen eta diskriminazio zuzena nahiz zeharkakoa eragiten duten erabakiak: adina edo desgaitasuna dela- eta aldeko eta aurkako diskriminazioa eragiten dutenak; ordainsari, lanaldi, prestakuntza eta gainerako lan-baldintzak direla-eta aldeko edo aurkako diskriminazioa eragiten dutenak; eta jatorria, arraza edo etnia barne, egoera zibila, gizarte maila, erlijio edo sinesmenak, ideia politikoak, sexu joera, sindikatuei eta sindikatuen erabakiei atxikitzea edo ez atxikitzea, enpresako beste langile batzuekin ahaidetasun-lotura izatea edo hizkuntza dela-eta diskriminazioa eragiten dutenak.</p> <p>c) Enpresak bere kasa hartzen dituen erabakiak, langileei kalte eginez, baldin eta erabaki horiek tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa bete dadin galdatzeko enpresan egindako erreklamazio baten aurrean edo administrazio-egintza zein egintza judicial baten aurrean erreakzioz hartuak badira.</p> | <p>a) El impago y los retrasos reiterados en el pago del salario debido.</p> <p>b) Adoptar decisiones unilaterales de la empresa que impliquen discriminaciones directas o indirectas desfavorables por razón de edad o discapacidad, discriminaciones favorables o adversas en materia de retribuciones, jornadas, formación, promoción y demás condiciones de trabajo, discriminaciones por circunstancias de origen, incluido el racial o étnico, estado civil, condición social, religión o convicciones, ideas políticas, orientación sexual, adhesión o no a sindicatos y a sus acuerdos, vínculos de parentesco con otras personas trabajadoras o por razón de la lengua.</p> <p>c) Adoptar decisiones del empresario que supongan un trato desfavorable de las y los trabajadores como reacción ante una reclamación efectuada en la empresa o ante una acción administrativa o judicial destinada a exigir el cumplimiento del principio de igualdad de trato y no discriminación.</p> |



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|---|--|
| <p>d) Enpresak langileekin pentsioak direla-eta hartutako konpromisoak ez betetzea pentsio- planak eta pentsio-funtsak arautzen dituen araudian ezarritako moduan.</p> <p>e) Lan-arriskuen prebentziorako araudia bete gabe egiten diren lanak berehala ez geldiaraztea edo geldieran ez uztea, Lan eta Gizarte Segurantzako ikuskatzailetzak errekerimendua egin duenean, eta lan horiek, ikuskatzailetzaren iritiz, langileen segurtasunerako eta osasunerako gertu gertuko arrisku larria dakartenean berekin, edo lanei berriz ekitea geldiarazteko arrazoiak aurrez zuzendu gabe.</p> <p>f) Langileak euren ezaugarri pertsonal ezagunekin bateraezinak diren lanpostuetara atxikitzea, bai eta langile horiek laneko segurtasun eta osasunaren alorrean dituzten lanbide-gaitasunak kontuan izan gabe lanean jardutea, egoera horiek langileen segurtasunerako eta osasunerako gertu-gertuko arrisku larria eragiten dutenean.</p> <p>g) Prebentzio-baliabideen presentzia eza, hori nahitaezkoa denean, edo haien presentziak dakartzan betebeharrak ez betetzea, dagokion araudian arriskutsutzat edo arrisku berezikotzat jotako jarduerak direnean.</p> <p>h) Honako alderdi hauek ez egiaztatzea legez edo arauz ezarritako eran: enpresa azpikontratatuak zuzendaritzan nahiz produkzioan lan-arriskuen prebentzioko prestakuntza duten langileak badituztela, prebentzio-antolamendu egokia badutela, eta dagokion erregistroan inskribatuta daudela.</p> <p>i) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzean lan-baldintzei aplikatu dakiekeen beste edozein neurri hartu ez izana, baldin eta horien ondorioz langileen</p> | <p>d) Incumplimiento por la empresa de los compromisos por pensiones con el personal en los términos establecidos en la normativa reguladora de los planes y fondos de pensiones.</p> <p>e) No paralizar ni suspender de forma inmediata, a requerimiento de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social, los trabajos que se realicen sin observar la normativa sobre prevención e riesgos laborales y que, a juicio de la Inspección, impliquen la existencia de un riesgo grave e inminente para la seguridad y salud de las y los trabajadores, o reanudar los trabajos sin haber subsanado previamente las causas que motivaron la paralización.</p> <p>f) Adscribir trabajadores o trabajadoras a puestos de trabajo cuyas condiciones fuesen incompatibles con sus características personales conocidas, así como la dedicación de aquéllos a la realización de tareas sin tomar en consideración sus capacidades profesionales en materia de seguridad y salud en el trabajo, cuando de ello se derive un riesgo grave e inminente para la seguridad y salud de las y los trabajadores.</p> <p>g) La falta de presencia de los recursos preventivos cuando ello sea preceptivo o el incumplimiento de las obligaciones derivadas de su presencia, cuando se trate de actividades consideradas en la normativa correspondiente como peligrosas o con riesgos especiales.</p> <p>h) Incumplir el deber de verificar, en la forma establecida legal o reglamentariamente, que las empresas subcontratadas dispone de recursos humanos, tanto en su nivel directivo como productivo, que cuentan con la formación necesaria en prevención de riesgos laborales, y que dispone de una organización preventiva adecuada, y la inscripción en el registro correspondiente.</p> <p>i) No adoptar cualesquiera otras medidas preventivas aplicables a las condiciones de trabajo en ejecución de la normativa sobre</p> |
|---|--|



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|--|---|
| <p>segurtasunerako eta osasunerako arrisku gertu- gertukoa eta larria eragiten bada.</p> <p>j) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kontzeptu guztiengatik biltzen dituen kuotak ordaindu ez izana, dagokion epean eta araudiak ezarritako moduan, kotizazio-agiriak aurkezteke.</p> <p>k) Kotizazio-agirietan edo bestelako agirietan datu faltsuak edo okerrak deklaratea edo agerraraztea iruzur eginez, betiere kuotetan eragina badute.</p> <p>l) Lana ematea kontratuak etenda edo lanaldia murriztuta duten langileei, kontratuak eteteko neurriak aplikatzeko aldiari, edo lan-agintaritzari edo, hala bada kasua, langabezia prestazioak kudeatzen dituen entitateari jakinarazitako lanaldi murriztuko ordutegitik kanpo.</p> <p>m) Langileei deskontatutako Gizarte Segurantzako kuota zatia epean ez ordaintzea eta harekin geratzea, edo legez dagokiona baino deskontu handiagoa egitea.</p> <p>n) Larrizat sailkatutako exekuzio-baldintza berezien ez-betetzeak 15 laneguneko epean ez zuzentzea.</p> <p>o) Hirugarrenei ez-betetze larriak.</p> | <p>prevención de riesgos laborales de las que se derive un riesgo grave e inminente para la seguridad y salud de las personas trabajadoras.</p> <p>j) No ingresar, en el plazo y formas reglamentarios, las cuotas correspondientes que por todos los conceptos recauda la Tesorería General de la Seguridad Social, no habiendo presentado los documentos de cotización.</p> <p>k) Efectuar declaraciones o consignar datos falsos o inexactos en los documentos de cotización o en cualquier otro documento de forma fraudulenta, cuando se modifiquen las cuotas.</p> <p>l) Dar ocupación a las y los trabajadores afectados por la suspensión de contratos o reducción de jornada, en el período de aplicación de las medidas de suspensión de contratos o en el horario de reducción de jornada comunicado a la autoridad laboral o a la entidad gestora de las prestaciones por desempleo, en su caso.</p> <p>m) Retener indebidamente, no ingresándola dentro de plazo, la parte de cuota de Seguridad Social descontada a sus trabajadores y trabajadoras, o efectuar descuentos superiores a los legalmente establecidos.</p> <p>n) La no subsanación, en el plazo de 15 días hábiles, de los supuestos de incumplimiento de condiciones especiales de ejecución calificados como graves.</p> <p>o) El tercer incumplimiento grave</p> |
| <p>Ez-betetzeek honako isun edo zehapen ekonomiko hauek ezartzea dakarte:</p> | <p>Los incumplimientos supondrán la imposición de las siguientes penalidades económicas:</p> |
| <p>a) Arintzat sailkatutako ez-betetzei 200 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 0,1 (BEZik</p> | <p>a) A los incumplimientos calificados como leves se les aplicará una penalidad de 200 €, o del 0,1% del importe de adjudicación del</p> |



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|--|---|
| <p>gabe), bigarren era horretan kalkulaturata ateratzen dena aurrena baino handiagoa bada.</p> <p>b) Larriztat sailkatutako ez-betetzei 1.000 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 1 (BEZik gabe), bigarren era horretan kalkulaturata ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada.</p> <p>c) Oso Larriztat sailkatutako ez-betetzei 5.000 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 3 (BEZik gabe), bigarren era horretan kalkulaturata ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada.</p> | <p>contrato (IVA excluido), si la penalidad así calculada fuera mayor.</p> <p>b) A los incumplimientos calificados como graves se les aplicará una penalidad de 1.000 € o del 1 % del importe de adjudicación del contrato (IVA excluido), si la penalidad así calculada fuera mayor.</p> <p>c) Los incumplimientos calificados como muy graves se sancionarán con una penalidad de 5.000€ o del 3 % del importe de adjudicación del contrato (IVA excluido), si la penalidad así calculada fuera mayor</p> |
| 2. Hizkuntza-baldintza bereziak: | 2. Condiciones especiales de ejecución en materia lingüística: |
| Elgeta herri euskalduna da eta euskara da hizkuntza nagusia. Udalerrian, euskararekin batera beste hizkuntza batzuk ere badaude. | Elgeta es un pueblo euskaldun en el que el euskera es la lengua principal. En el municipio, junto al euskera hay otras lenguas. |
| Proposamenak jaso beharreko gutxieneko betebeharrak hauek dira: | Los requisitos mínimos que debe cumplir el servicio son los siguientes: |
| <p>1. Bezeroekiko lehen hitza euskaraz izango da.</p> <p>2. Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio elementu guztiak (menuak, eskaintzak...) gutxienez euskaraz egongo dira.</p> <p>Horiei 'Hizkuntzen Trataerarako adostutako konpromisoak' gehituko zaizkie.</p> | <p>1. La primera palabra con respecto a los clientes será en euskera.</p> <p>2. Los rótulos, notas, señales y demás elementos de comunicación (menús, ofertas...) estarán al menos en euskera.</p> <p>A ellos se sumarán los 'compromisos acordados para el Tratamiento de las Lenguas'.</p> |
| Jarraipena | Seguimiento |
| Udalak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, adostutako modu eta epeetan. Horrek neurri zuzentzaileak edota hobetzeko proposamenak egin ahalko ditu | El Ayuntamiento realizará el seguimiento del cumplimiento de los requisitos lingüísticos establecidos en la forma y plazos acordados. Esto podrá incluir medidas correctoras y/o propuestas de mejora |
| SPKLko 62. eta 210. artikuluekin bat etorritik, kontratuaren arduradunak kontratua nola | De conformidad con los artículos 62 y 210 de la LCSP, el responsable del contrato supervisará el |



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|--|--|
| <p>betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren ziurtatzeko jarraipena egingo du, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu. Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratuaren arduradunak, jarraipen espezifikorako euskarriak erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko.</p> | <p>cumplimiento del contrato, realizará un seguimiento del cumplimiento de las condiciones lingüísticas y adoptará las decisiones e instrucciones necesarias al respecto. La inspección se llevará a cabo, además de a la finalización del contrato, de forma continuada, por el responsable del contrato, utilizando soportes de seguimiento específico, para poder corregir los errores que se puedan producir.</p> |
| <p>Ez-betetzeei 200 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 0,1 (BEZik gabe) bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada. Gainera, ez-betetzea ez bada zuzendu 15 laneguneko epean, atzera ere 1.000 euroko isuna ezarriko da edo kontratuaren adjudikazio zenbatekoaren % 1 (BEZik gabe) bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada. Beste 15 laneguneko epea eman eta horrela ere ez-betetzea ez bada zuzentzen, oinarritzko betebeharrak bat ez-betetzat joko da</p> | <p>Los incumplimientos serán sancionados con multa de 200 euros o con multa superior al 0,1% (IVA excluido) del importe de adjudicación del contrato. Además, si el incumplimiento no se hubiera subsanado en el plazo de 15 días laborables, se impondrá una multa de 1.000 euros o el 1% (IVA excluido) del importe de adjudicación del contrato que resulte de esta segunda forma superior a la primera. Cuando se conceda un nuevo plazo de 15 días laborables sin que se subsane el incumplimiento, se considerará incumplimiento de una obligación básica</p> |
| <p><u>Lan-baldintzak ez kaltetzeko baldintza bereziak:</u></p> | <p><u>Condiciones especiales para no perjudicar las condiciones de trabajo:</u></p> |
| <p>Kontratua betetzeko aldi osoan zehar, enpresa kontratistak obligazioa du, eskaintza aurkezteko unean aplikatu daitekeen lan-hitzarmenaren arabera, edo hala balitz kasua, lan-hitzarmena hobetzeko enpresaren eta langileen artean izenpetutako itunen arabera, egindako kontratuari atxikitako beharginei une bakoitzean dagozkien lan-baldintzak (lanaldia, soldata eta urtekoan egokitutakoak) bere kabuz eta aldebakartasunez ez murrizteko. Salbuespen bakarra enpresaren eta langileen ordezkarien arteko akordio esplizituren bat izatea izango litzateke.</p> | <p>Durante todo el período de ejecución del contrato, la empresa contratista está obligada a no reducir de forma unilateral las condiciones de trabajo (jornada, salario y año) que correspondan en cada momento a los trabajadores adscritos al contrato celebrado, de acuerdo con el convenio laboral aplicable en el momento de la presentación de la oferta o, en su caso, con los pactos suscritos entre la empresa y los trabajadores para la mejora del mismo. La única excepción sería la existencia de algún acuerdo explícito entre la empresa y los representantes de los trabajadores.</p> |
| <p>Kontratua betetzeko baldintza berezi hori beteko ez balitz, zehapena ezarriko da, eta</p> | <p>Si no se cumpliera este requisito especial de cumplimiento, se impondrá una sanción cuyo importe se calculará de la siguiente manera:</p> |



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|--|--|
| honela kalkulatu da zehapen horren zenbatekoa: | |
| Kontratuari atxiki zaizkion beharginen lan hitzarmenak duen orduko/soldata hori murriztu edo kendu zaionaren portzentaje hori berbera kontratuaren aurrekontuari aplikatuta, muga %10 izanik. Orduko/soldata murrizketa %10etik gorakoa balitz kontratuaren funtsezko obligazio bat ez betetzat joko litzateke eta kontratua deuseztatzeko arrazoi bat izango litzateke. | Aplicar al presupuesto del contrato el mismo porcentaje de reducción o deducción de esa hora/salario que el convenio laboral de los trabajadores adheridos al contrato, con el límite del 10%. Si la reducción horaria/salarial fuera superior al 10% se consideraría incumplimiento de una obligación contractual esencial y una de las causas de rescisión del contrato. |
| <u>Prozedura</u> | <u>Procedimiento</u> |
| Enpresa kontratatzaile batek urraketaren bat egin duelako susmoa badago, eta hori frogatzeko Laneko eta gizarte-segurantzako ikuskatzailetzaren (LGSi) esku-hartzea behar bada, laneko arau-hausterik dagoen ikusteko, kontratuaren zuzendariak aurretik proposatuta, kontratazio-organoak egoeraren berri emango dio LGSiri. | Cuando exista sospecha de infracción por parte de una empresa contratante que requiera la intervención de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social (ITSS para determinar la existencia de infracción laboral, el órgano de contratación, a propuesta previa del Director del contrato, lo pondrá en conocimiento del ITSS. |
| Urraketa egon dela bi modutan berretsi ahal izango da, LGSik ikuskaritza egin eta laneko zehapena ezarrita edo epai judicial bat emanda, horietako edozeinek behin irmotasuna lortu ondoren. | La existencia de la infracción podrá confirmarse de dos maneras, una vez realizada la inspección por el SIMI, con imposición de sanción laboral o una sentencia judicial, una vez que cualquiera de ellos haya obtenido firmeza. |
| Gainerako urraketan kasuetan, Laneko eta gizarte segurantzako ikuskatzailetzaren egiaztapenik behar ez denetan, kontratuaren zuzendariak eskatu beharko du espedientea zabaltzea. | En el resto de las infracciones, cuando no sea necesaria la acreditación de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social, el Director del contrato deberá solicitar la apertura del expediente. |
| Edozein kasutan ere, espedientearen ebazpena eman aurretik, entzun egingo zaio enpresa kontratistari. | En todo caso, con carácter previo a la resolución del expediente, se dará audiencia a la empresa contratista. |
| Zehapenei dagokienez, kontratistari egin behar zaizkion ordainketa zatikatuetatik edo osotik egoki den kopurua kendu egingo da. | Las sanciones se reducirán en la cantidad correspondiente a los pagos fraccionados o totales que deban efectuarse al contratista. |
| Gainera, atal honetan azaltzen diren betebeharrak asetzeko egin beharreko gastuak | Además, los gastos necesarios para satisfacer las obligaciones a que se refiere este apartado |



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|---|---|
| adjudikaziodunaren kontu izango dira eta sartuta egongo dira kontratua gauzatzeko eskaintako prezioan. | serán a cargo de la adjudicataria e incluidos en el precio ofertado para la ejecución del contrato. |
| 19. KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARREN BATI ERAGINDAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAK DUEN ERANTZUKIZUNA | 19. RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A UN TERCERO EN LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO. |
| Esleipenduna izango da kontratuaren helburu den zerbitzua ematerakoan hirugarrenei sor dakizkiekeen kalte material, pertsonal eta ondoriozkoen erantzule, eta "arriku orotarako" kalteei aurre egiteko gutxieneko aseguru-polizak hartu beharko ditu prestazioko ondasunentzat, 200.000 €ko zenbatekoan, edukiarentzat, eta horien onuradun moduan Elgetako Udala jarriko du. Era berean, Erantzukizun Zibileko asegurua ere (orokorra, patronala, produktuena eta lekuarena) ere bai, gutxienez 300.000 €ko zenbatekoarentzat eta kaltetun bakoitzeko gutxienez 120.000 €ko azpimugarekin. | El adjudicatario será responsable de los daños materiales, personales y derivados que se puedan ocasionar a terceros en la prestación del servicio objeto del contrato, debiendo suscribir las pólizas de seguro de daños "a todo riesgo" mínimo por los bienes objeto de la prestación, por importe de 200.000 €, de contenido, y poniendo como beneficiario de las mismas al Ayuntamiento de Elgeta. Asimismo, el seguro de Responsabilidad Civil (general, patronal, de productos y lugar), por un importe mínimo de 300.000 € y un sublímite por víctima mínimo de 120.000 €. |
| Erabilerak udal jabariaren suntsipen, kalte edo hondatzea ekarriko balu, esleipendunak Udalari itzuli beharko dio haiek berreraiki edo konpontzeak sortutako gastuen zenbateko osoa, aurrez jarrita zerbitzu teknikoek emandako balorazioa. | Si la utilización lleva aparejada la destrucción, deterioro o desperfectos del patrimonio municipal, el adjudicatario se obliga a reintegrar al Ayuntamiento el coste total de los gastos de reconstrucción o reparación, depositando previamente el importe que los servicios técnicos valoran. |
| Kalteak konponezinak baldin badira, Udalari kalte-ordaina eman beharko zaio, suntsitu diren ondasunen balioa adinakoa edota kaltetutako ondasunen hondatze-mailak sortutako zenbatekoa adinakoa. | Si los daños son irreparables, indemnización al Ayuntamiento en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o al importe del deterioro de los bienes dañados. |
| Elgetako Udala ez da, inolaz ere, ustiapenarekin zerikusirik ez duten hirugarrenei esleipendunak zuzenean edo zeharka sor diezazkiekeen kalteen erantzule subsidiario izango. | En ningún caso, el Ayuntamiento de Elgeta se responsabilizará de manera subsidiaria de los daños que el adjudicatario pueda producir directa o indirectamente en terceros ajenos a la explotación. |
| 20. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA | 20. DATOS DE CARÁCTER PERSONAL |



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|--|---|
| <p>Kontratatutako zerbitzuei buruz enpresa esleipendunak jakin dakizkien datua guztiak dira konfidentzialak, eta gorde beharko dira horien izenak eta sekretua. Esleipendunak kalte-ordaina eman beharko dio udalari, eta kalte-ordaina eman beharko die isiltasun profesionalaren betebeharra urratzeagatik kalte eta galerak izan dituzten pertsoneri.</p> | <p>Todos aquellos datos que pudiera conocer la empresa adjudicataria en relación con los servicios contratados se entienden confidenciales, debiendo guardar la identidad y el secreto de los mismos. La empresa adjudicataria deberá indemnizar al Ayuntamiento y a las personas afectadas por los daños y perjuicios causados por la contravención del deber de sigilo profesional.</p> |
| <p>Esleipendunak erabiltzen badu datu pertsonalik beharrezkoa denean kontratua betetzeko, erabiliko ditu kontuan hartuta zer xedatzen den Europar Batasunaren eta Kontseiluaren, 2016ko apirilaren 27koa, 2016/678 Erregelamenduan, pertsona fisikoak babesteari buruz, datu pertsonalen trataerari dagokionez eta datu horiek libre zirkulatzeari dagokionez, eta kontuan hartuta hura garatzen duen araudia.</p> | <p>La utilización por la empresa adjudicataria de datos de carácter personal objeto de tratamiento que pueda resultar precisa para el cumplimiento del contrato, se efectuará con observancia de lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, y de la normativa que lo desarrolle.</p> |
| <p>Enpresa esleipendunak ezingo ditu aplikatu edo erabili datu pertsonalak, lortzen baditu kontratua dela-eta hor agertzen den helburua ez den beste helburu baterako, eta ezingo dizkie laga beste pertsona batzuei, ezta zaintzeko ere.</p> | <p>La empresa adjudicataria no podrá aplicar o utilizar los datos de carácter personal que obtenga por razón del contrato con fin distinto al que figura en el mismo, ni cederlos, ni siquiera para su conservación a otras personas.</p> |
| <p>Kontratu prestazioa bete eta gero, datu pertsonal tratatuak udalari eman beharko zaizkio.</p> | <p>Una vez cumplida la prestación contractual, los datos de carácter personal tratados deberán ser entregados al Ayuntamiento.</p> |
| 21. ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK. | 21. DERECHOS Y OBLIGACIONES |
| Esleipendunaren eskubideak. | Derechos del adjudicatario |
| <p>a) Laga zaizkion ondasunak zerbitzua behar bezala emateko erabiltzekoa.</p> <p>b) Ustiapenaren oreka-finantzarioa gordetzeko, baldintza orrietan eta hura gidatzen duten gainerako dokumentuetan zehaztutako moduan, eta Toki Korporazioen Zerbitzuetako Araudiaren (TKZA) eta Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen arabera.</p> | <p>a) Utilizar los bienes que le sean reclamados para la correcta prestación del servicio.</p> <p>b) Mantener el equilibrio financiero de la explotación en los términos que se determinen en los pliegos de condiciones y demás documentos que los rijan, de acuerdo con el Reglamento de Servicios de las Corporaciones</p> |



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|---|--|
| <p>c) Elgetako Udalarengandik babes-juridikoa jasotzekoa, guztien aurrean administrazio-kontratu berezi baten esleipendun moduan errespetatua izan dadin, eta Udalari eskatzekoa bere agintaritza erabil dezala, beharrezko denean, zerbitzua normaltasunez emateko edozein oztopo eragozteko edota hura bertan behera uzteko.</p> <p>d) Zerbitzua emateagatik dagokion ordaina jasotzekoa, dagozkion tarifen bidez. Prezio zerrendak agerian jarri beharko dira, jendeak ikusteko lekuan.</p> <p>e) Herri-intereseko arrazoiengatik esleipenaren erreskatea egingo balitz, dagokion kalte-ordaina jasotzekoa.</p> <p>f) Prezioak berraztertzea zerbitzua aldatu gabe gerora sortutako ustegabeko egoerek ustiapenaren oreka-ekonomikoa hautsiko balute, kontratazio-organoaren baimenarekin.</p> <p>g) Administrazio-kontratu baten esleipendun moduan berari legozkioken gainerako eskubideak, Baldintza-orri hauetan espresuki zehaztuak ez baleude ere.</p> | <p>Locales (RSCT) y la Ley de Contratos del Sector Público.</p> <p>c) A recibir del Ayuntamiento de Elgeta protección jurídica para ser respetado ante todos como adjudicatario de un contrato administrativo especial, y a solicitar del Ayuntamiento la utilización de su autoridad cuando sea necesario para impedir o suspender cualquier obstáculo a la normal prestación del servicio.</p> <p>d) A percibir la correspondiente compensación por la prestación del servicio, mediante las correspondientes tarifas. Las listas de precios deberán exponerse en lugar visible para el público.</p> <p>e) A percibir la indemnización que corresponda en caso de rescate de la adjudicación por razones de interés público.</p> <p>f) Revisión de precios en el caso de que situaciones imprevistas sobrevenidas sin alterar el servicio rompieran el equilibrio económico de la explotación, con la autorización del órgano de contratación.</p> <p>g) Los demás derechos que le pudieran corresponder como adjudicatario de un contrato administrativo, aunque no estuvieran expresamente determinados en este Pliego de Condiciones.</p> |
| Esleipendunaren betebeharrak. | Obligaciones del adjudicatario |
| <p>a) Hileroko alokairua Udalak finkatutako epean ordaintzea.</p> <p>b) Emakidadunak funtzionamendu, garbitasun eta kontserbazio egoera onean izan beharko ditu eraikina eta instalazioak; tabernajate txeko makina eta instalazio arrunt guztien beharrezko konponketa eta mantentze lanak ordaindu beharko ditu berauen kausa edo kostua edonolako izanik ere, eta instalazio eta makinaria honen oinarritzko mantentze lanez arduratu beharko da. Elgetako udalaren kontu izango dira egin beharreko edozein erako inbertsio edo erosi beharreko makineria</p> | <p>a) Abonar el alquiler mensual en el plazo fijado por el Ayuntamiento.</p> <p>b) Mantener los edificios y locales objeto de concesión y sus instalaciones en buen uso de funcionamiento y en perfecto estado de conservación y limpieza, siendo de su cargo cuantas reparaciones sean necesarias para tal fin, independientemente de su importe o causa. Será también de su cuenta la reposición de material fungible que se deteriore durante el período de concesión (será por cuenta del Ayuntamiento de Elgeta cualquier inversión que haya que realizar o maquinaria nueva que haya que adquirir, por lo que antes de su adquisición</p> |



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|--|--|
| <p>eroste, eta horregatik, erosi aurretik Elgetako udalaren baimena jaso beharko da)</p> | <p>se deberá contar con la autorización del Ayuntamiento de Elgeta).</p> |
